



BU09 Tolosa – Donostiako Ospitaleak Autobus zerbitzuaren egoerak sortzen digun kezka dela eta, honako mezua bidaltzen dizuegu Amasa-Villabonako Udalaren izenean:

Lurraldebus-eko BU09 linea, Tolosa eta Donostiako Ospitaleak lotzen dituen zuzeneko autobus zerbitzu publikoa da. Autobus linea honek ezinbesteko zerbitzua eskaintzen die Amasa-Villabonako eta Tolosaldea eskualdeko biztanleei, Gipuzkoako Ospitale garrantzitsua zuzenean lotzen baitu gure herriarekin 20 - 30 minututan. Lan egunetan (asteleheneetik ostiralera) 9 autobusen zerbitzua dago ezarrita eta asteburu eta jaiegunetan berriz zazpi.

Donostiako Ospitaleetan ibilgailuak aparkatzeko arazoa handiak egoten dira eta zerbitzu honek alternatiba bat eskaintzen du eta gainera zerbitzu honek garraio publikoaren erabilera sustatzen du, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz, mugikortasun jasangarriaren aldeko ekarpena eginez eta pertsona guztien irisgarritasuna lortuz.

Azken hilabeteetan, autobus linea honen **erabiltzaileek bideratutako kexak** iritsi zaizkio Amasa-Villabonako Udalari eta horrek gure kezka piztu du, erakunde publikoa garen aldetik, gure udalerrian dauden zerbitzu publiko guztien egoerak kezkatzen gaitu eta.

BU09 Linearen erabilera oso handia izaten da batez ere goizeko zerbitzuetan. Edukiera handiko autobus artikulatua ezartzen den arren (59 pertsona eserita eta 57 zutik), askotan Tolosatik irteten denerako, autobuseko eserleku guztiak okupatuta egoten dira eta zutik joan behar izaten duen jendeak autobusa guztiz betetzen du. Egoera honek gure herritarrak derrigor zutik joatera behartzen ditu eta kasu batzuetan Villabonako geltokietan autobusera ezin igotzea ere eragin du, herritar bat baino gehiago zerbitzurik gabe geratu delarik.

Gure ustez, kontuan hartu beharreko hainbat elementu gehitu behar dira; Villabonatik Donostiarako bidea, A-1 autobidea erabiliz egiten da autobusak abiadura handia hartzen duelarik, autobus zerbitzu hau erabiltzen duten herritar askok 50 urtetik gora dituzte eta jende artean zutik joateak arrisku nabarmena sortzen du pertsona horien osasunerako (erorketa eta lesio arriskua).

Zerbitzu honen erabiltzaileen aldetik jaso ditugun mezuen arabera, gaur egungo baldintzekin jendeak nahiago du ibilgailu partikularra hartu autobus horretan joatea baino.

Azaldutako guzti honegatik, Amasa-Villabonako Udalak honako eskaera egiten dio LURRALDEBUS Gipuzkoako Foru Aldundiaren herriarteko autobus garraio zerbitzu publikoari:

Bidaiarien segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko BU90 autobus zerbitzuaren egoera aztertzea eta goizeko ordu horietan dauden bidaiari guztientzako irtenbidea bilatzea eskatzen dugu.

Gure ustez, zerbitzu honek errefortzu bat behar luke (beste autobus bat) gutxienez jende gehien pilatzen den goizeko orduetan. Horrela, herritarrak derrigor zutik eta deseroso joatea saihestu daitekeela pentsatzen dugu, zerbitzu publiko garrantzitsu hau hobetuz eta duinduz.

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, eskaera hau luzatzen dizuet.

**Amasa-Villabonan, 2024ko martxoaren 22an
ALKATEAK,**

Izp. Beatriz Unzue Esnaola